

TXARMEGARRIA ZIRA

(Vasca)

Txarmegarria zira eder eta gazte,
ene biotzak ez du zu baizikan maite,
bertze zenbait bezala, ote zara libre?
zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke.

Txuri gorria zira, arrosa bezala;
Profetak ez dira mintzo ola ola.
Araberan bazinu gorputza orrela,
iduriko zinuen... zeruko izarra.

Oi maitea, zatozkit placer duzunean,
iñork ikusi gabe, illun-abarrean;
Lagunbat badukezu joaiteko bidean
ark ezarriren zaitu trankil biotzean.

Plazer eginen duzu, ixiltzen bazira,
aur iñorantak ola tronpatzen baitira.
Ez da enetzat ina olako segida...
Bertzalde zure baitan ez naiteke fida!

Adioz beraz orai, ene arraroa,
Ori dela medio erritik banoa;
Biotza triste eta petxuan gogoia,
Beti jarraikiren zait zur'amodioa.